

KOBIE SERIE ANTROPOLOGÍA CULTURAL nº 17: 55-70
Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia
Bilbao - 2013
ISSN 0214-7971
Web <http://www.bizkaia.eus/kobie>

EUSKAL ANTROPOLOGIAREN ARESTIKO GARAIA: EUSKAL NORTASUNAREN OINARRIAK ERAIKITZEN.

*The previous period of basque anthropology:
building the foundations of basque identity.*

Ixone Fernandez de Labastida Medina¹

(Recibido 27-III-2013)
(Aceptado 5-IV-2013)

Palabras clave: Antropología Vasca. Cultura vasca. Romanticismo. Vertiente mediterránea.

Key words: Basque anthropology. Basque culture. Mediterranean side. Romanticism.

Hitz gakoak: Erromantizismoa. Euskal antropologia. Euskal kultura. Mediterranear isurialdea.

RESUMEN.

A pesar de que la antropología vasca se afianzó a comienzos del siglo XX, con anterioridad se había gestado el contexto ideal para su surgimiento. El origen y desarrollo inicial de la antropología en general, ha estado estrechamente ligado al contexto sociopolítico. En el caso del País Vasco, las bases de esta área de conocimiento debemos buscarlas tanto en el fuerte sentimiento de nostalgia generado tras la pérdida de los Fueros en el siglo XIX como en la influencia del romanticismo europeo. Este determinado marco, además de condicionar completamente el carácter de la antropología del lugar, también ha contribuido a arraigar una determinada visión sobre la cultura y la identidad vasca.

SUMMARY.

Although Basque anthropology became entrenched in the early twentieth century, before that, the ideal context for its emergence had been planned. The origin and early development of anthropology, in general, has been closely linked to the socio-political context. In the case of the Basque Country, we must seek the foundations of this area of knowledge in both; the strong feeling of nostalgia generated after the loss of the own regional laws in the nineteenth century and in the influence of European Romanticism. This particular frame has fully conditioned the character of local anthropology and has also helped ingrain a particular vision of Basque culture and identity.

¹ Euskal Herriko Unibertsitateko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakasle atxikia. Tolosa Hiribidea 70, 20018 Donostia. Posta elektronikoa: i.fernandezdelabastida@ehu.es

LABURPENA.

Euskal antropologia XX. mendearen hasieran errotu bazen ere, hori baino lehenago prozesu hau ahalbidetu zuen testuinguru aproposa sortu zen. Antropologia disziplinaren sorrera eta hasierako bilakaera testuinguru soziopolitikoari zuzenki lotua egon zen. Euskal Herriaren kasuan, jakintza arlo honen oinarriak XIX. mendeko Foruen galerak sustatutako herrimin sentimenduan eta Europako erromantizismoan bilatu behar ditugu. Marko zehatz honek, tokiko ezagutza antropologikoaren izaera guztiz baldintzatzeaz gain, euskal kultura eta nortasunaren inguruko ikuspegi zehatz bat zuztartzeko lagundu du ere.

1. SARRERA.

Idazki hau aspaldiko partez buruan nituen hainbat ideia ordenatzeko premiagatik sortu dut. 2004. urtean tesia egiten hasi nintzenetik, hain zuzen ere. Orduan, Arabako mendi zonaldean hainbat abeltzainek produzitzen ari diren mendiko zaldi arrazaz hausnartzea erabaki nuen. Haragirako zaldi honen ekoizpenarekin batera ematen ari ziren hainbat estrategia kultural, alegia. Horien artean aipagarriena, urtero Arabako Mendialdea eskualdean ospatzen den Zaldiaren Eguna delako jaia.

Marko teorikoa sortzeko asmoarekin, euskal antropologiak lehenago zonalde honetaz aztertutakoa gainbegiratzeko aritu nintzen. Eta azkar bukatu ere. Orduan konturatu nintzen euskal antropologiak oso gutxi aztertu duela ez bakarrik Arabako Mendialdea baizik eta Euskal Herriko mediterranean isurialdea bera orokorrean. Zergatik? Euskal antropologiak jorratutako ikergaiak eta aintzat hartutako eredu geografikoari darraion ikuspegi kulturalagatik, hain zuzen ere. Nire tesia zentzu honetan argia da; disziplina honek euskal sena baserri munduan kokatzeko ahalegin handiak egin izan dituela bere sorreratik eta horren ondorioz, atlantiar isurialdeko eredu kultural horretatik aldentzen diren beste errealitatei arreta askoz gutxiago eskeini diela. Praktika hau euskal antropologiaren sistematizazio garaian errotu bazen ere, hura baino askoz lehenago eratzen hasi zen. Lehenengoari buruz luze eta sakon idatzi egin da (Azkona 1984, 1987; Apalategi 1981, 1987; Erkoreka 1988; Fernandez de Larrinoa 1998, 2002; Manterola 1994; Zulaika 1996). Oraingoan berriz, euskal antropologiaren arestiko garai horretan murgilduko gara.

Euskal antropologiaren sistematizazio garaia deritzodana XX. mendearen hasieran sortu zen. Konkretuki, Eusko Ikaskuntzak 1918. urtean Arantzazun ospatutako lehen kongresuaren ondorioz Telesforo de Aranzadi, Joxemiel Barandiaran eta Enrique Egurennek Antropologia Saila sortu zuten. Orduan aurrera sortutako garaiari sistematizazioarena deritzot orduan antropologiaren arau eta printzipio metodologikoak antolatuta eta finkatu zirelako. 1918. urtetik 1980. urtera arte iraun zuen euskal antropologiaren aldi honetan hiru fase ezberdin eman ziren; Espainiako gerla zibilara arte, bitartean eta ondoren. Lehenengo fasean Europako hildo teoriko eta metodologiko aipagarrienak hartuta, Aranzadi, Barandiaran eta Egurennek Euskal Herrian ikergai ezberdinetaz azterketa sistematizatuak egin zituzten hainbat eremu aztergai izanik; natur zientziak, arkeologia, aurrehistoria, antropologia fisikoa, etnologia, folklorea eta etnografia. Orduan euskal arraza eta etnia direlakoak, eredu kultural aurre-indoeuropearra eta elkatruean oinarritutako gizarte harremanen eredu gisa aztertu ziren. Hau dela eta, euskal etniaren esentzia landa testuinguruan kokatu zen, zehazkiago esanda, baserri munduan. Euskal

baserriari atxikitutako balioek (familia, Jungoikoa eta lana), garai horretako euskal antropologiaren ikuspegi erromantikoa guztiz asetzen zuten. Sistematizazio garaiko bigarren aldia, 1936tik 1960. urte iraun zuena, euskal kulturaren azterketarako sasoi gaitza izan zen. Eusko Ikaskuntza desagertu eta ikertzaile asko, besteren artean Joxemiel Barandiaran bera, erbesteratuak izan ziren. Garai honetan, beraz, Hego Euskal Herriko antropologia bi testuinguru ezberdinetan garatu egin zen; erbestean lan egiten jarraitu zuten lanekin eta Espainan bertan lan egiten jarraitu zutenekoekin. Horregatik, oso zaila da euskal ikerketentzako garai neketsu horretan ekoiztutako lanen ezaugarri zehatzak aipatzea. Orokorrean, ordea, aurreko garaian zehaztutako joera berdinarekin jarraitu zutela baieztatu dezakegu. Azkenik, hirugarren aldia 1964. urtetik (Barandiaranek Nafarroako Unibertsitatean Euskal kulturaren inguruko katedra irakasten hasi zenean) 1980. urtera arte (instituzionalizazio garaia deritzona hasi zenean) iraun zuen. Emaitzarik aipagarriena Etniker taldeak Euskal Herriko kultura tradizionalaz eginiko ekarpenak izan ziren. Etniker taldeak Barandiaranek (1963) sortutako Galdetegi Etnografikoa esleitzen zuen. Hau urgentziatzeko lana bilakatu zen garaiko antropologiantzat gerra osteko modernizazio prozesu azkartuak euskal gizarte tradizionala erabat suntsituko zuela delako sinismena akuilaturik. Euskal kulturaren galerari loturiko sinismen honek eta bizimodu tradizional hura lehen bait lehen jasotzearen alde lan egiteko premia horrek, baserria euskal eredu kulturaltzat finkatzen lagundu zuen.

Artikulu honetan euskal antropologiak bizi izandako bilakaerari helduko diot. Zeregin honen xedea, berriz, disziplina honek historian zehar euskal kulturaren inguruan eraiki izan duen irudia plazaratzea da. Helburu honekin hurrengo biak uztartuko ditut, alde batetik, euskal antropologiak jorratutako ikergaiak eta bestetik, aintzat hartu duen ikuspegi soziogeografikoa. Baina lehen aipatu dudana bezala, luze idatzi egin da euskal antropologiaren lehen garai honetaz. Ez horrenbeste, ordea, sistematizazioa ahalbidetu zuen aurretiko garaiaz. Nire **hipotesia** zentzu honetan argia da; Aranzadi, Barandiaran eta Egurenen lanek erakutsitako kutsu erromantikoa ezin da hitz egin, modu batean edo bestean lehenago euskal kultura aztergai izan zuten bertako nahiz kanpoko idazle, kronista eta apaizen lanak kontuan izan gabe ere. Hauxe izango da, hain zuzen ere, idazki honen **helburua**, euskal antropologiaren sorrera ahalbidetu zituzten lanen eta pertsonaien inguruko berrikuspena egitea, alegia.

Euskal antropologiak, 1918. urtean sortutakoa, euskal kultura izan du aztergai. Aurreratu dudana moduan berriz, euskal kulturaren inguruko irudi zehatz bat jorratu egin du; euskal gizarte tradizionalari dagokiona. Ikuskera honentzat, euskal kultura ideala mailaz maila suntsiketara prozesu bat pairatzen hasi zen 1876. urtetik aurrera Foruen abolizioarekin batera eratorri ziren eraldaketa sozialen ondorioz. Data hori baino

lehenago ordea, Foru gizartea mintzagai izan zuten hainbat lan ekoiztu ziren bertako apaiz eta intelektual nahiz bidaiari kanpotarren eskutik. XVII. eta XIX. mende bitartean euskal gizarte eta kultura ideala deskribatu zituzten lan guzti horiek lehen berri antropologikotzat har daitezke. Besteren artean, Manuel Larramendi (1690-1766), Juan Ramon Iturriza (1741-1812), Jose Antonio Mogel (1745-1804) edo Ricardo Becerro de Bengoa (1845-1902) hartu hartu ditzazkegu bertako aitzindaritzat. Bidaiari europearren kasuan berriz, Julien Vinson (1843-1926), Wentworth Webster (1828-1907) edo eta Wilhem Von Humboldt (1767-1835).

Aurreko hauen lan batzuren berrikuspenari ekingo diogu jarraian euskal gizarte tradizionalari buruz gailendutako ezaugarriak berreskuratzeko asmoarekin. Modu honetan hobeto ulertu ahal izango dugu irizpide hauek nola bilakatu ziren gero oinarrizko premisetan euskal antropologiak aipaturiko kultur eredu ideal hura eraikitzerako orduan.

2. LEHEN BERRI ANTROPOLOGIKOAK.

Euskal antropologia disziplina moduan XX. mendearen hasieran sortu bazen ere, lehenago egindako hainbat lan aintzat hartu behar dira euskal kulturaz hausnartzerakoan. Euskal gizakiaren ohituren eta bizimoduaren inguruko lehenengo deskripzioak Plinio, Ptolomeo eta Estrabon idazle klasikoek egin zituztela baieztatu zuen Arturo Campionek (Azkona 1987). Estrabonek konkretuki, K.a. 60. urtean jaio zena, Pirineoei buruz *Geografia* izena zuen hamazazpi ale-tako entziklopedia idatzi zuen bertara egindako bidaiari jasotako material ugaria erabiliz. Ikertzaila klasiko hauen azken helburua interes politikoei erantzutea eta espazioaren mugapen geografikoa egitea zen. Baina horrekin batera, Pirineo mendikatea eta Ebro ibaia artean bizi ziren tribuen inguruko bizimodu eta ohituren berri eman zuten ere. Zeharkako hausnarketa soziokultural hauei esker, garaiko baskoien, karistoiaren eta auscien tribuen hizkuntza, izaera, erabilitako txanpona, sinismenak edo erlijioari buruzko informazioa iritsi da gaur egunera arte.

Arturo Campion hizkuntzalari eta politikariak luze aztertu zituen klasikoaren lan hauek eta zera aipatu zuen horien inguruan:

“Las escasas noticias de la Antigüedad Clásica miran por la buena fama de los Baskones. No así las de los cronistas posteriores, nuevos enemigos suyos que los representaban ante los ojos de la crédula historia como gentes tornadizas e inconstantes, rebeldes y feroces, atropelladas en el sentir y el querer, traidoras y pérfidas” (Campion 1971:12).

Beraz, klasikoaren lanek interes berezia dute Campionen aburuz. Ez bakarrik beraien edukiagatik

baizik eta bere ustez, garaiko euskaldunak hoberen ulertu zituztenak izan zirelako ere.

Joxemartin Apalategik (1981) euskal antropologiaren historiaren jatorriaz hitz egiterakoan tokiko kulturaren aspektu zehatz batek izandako garrantzia kontuan hartu behar dela baieztatzen du. Euskal kulturaren ahozko produkzioaz ari da eta konkretuki, ahozko produkzio hori jaso zituztenen lanetaz. Izaera honetako obrarik aipagarriena XVI. mendean idatzi zela esaten du Apalategik. Orduan, Estevan de Garibaik (1592) hainbat euskal erretrau jaso eta sailkatu zituen. Beranduago, 1854. urtean, *Real Academia de Historiak Refranes Vascongados, recogidos y ordenados por Estevan de Garibai y Camallos, Cronista de S.M.* izenburuarekin argitaratu zuen kronista honen lana.

XVI. mendetik aurrera euskal ahozko produkzioaren inguruan hainbat liburu plazaratu ziren. Euskal Herriko narrazio historikoak eta garaiko iharduera eta ohituren inguruko deskripzioak, ordea, ez ziren XVIII. mendera arte iritsi. Garai honetan kokatzen dut nik, hain zuzen ere, euskal antropologiaren arestiko aldiaren sorrera. Ezizenetan galdu gabe, gauza bat argi dago; euskal antropologia disziplina moduan sortu baino lehenago, produkzio etnografikoaren aurre garai bat egon zen. Lehen ikerlan horiek ez ziren modu sistematikoan egin eta ez zuten irizpide metodologiko berdina jarraitzen ere. Historialari, kronista, apaiz edo idazleak eginiko lanak ziren. Hala ere, hauen balioa ezinbestekoa izan zen beranduago euskal antropologiaren sorrera sustatzeko. Garai honetan ekoiztutako lanen artean Aita Manuel Larramendiren *Corografía de la MN y ML Provincia de Gipuzkoa* (1754), Juan Ramon Iturrizaren *Historia general de Vizcaya* (1782) edo eta Joaquin José Landazuriren *Historia civil de la MN y ML provincia de Álava* (1798) ditugu.

XIX. mendea euskal antropologiaren sistematizazioarako transizio garaia izateak orduko testuinguru soziopolitikoari zor zaio. Baina testuinguru sozialak Euskal Herrian antropologia finkatzerako orduan izan duen ezinbestekotasuna ez da aparteko gauza izan disziplina honentzako. Izan ere, disziplina honen sorrera European nahiz Ipar Ameriketara garaiko errealitate politiko eta ekonomikoarekin zuzenki lotura egon da.

Europako kasuan antropologia disziplina moduan Afrikako gizatalde “primitiboei” buruzko lehen ikerketa sistematikoekin sortu zen. Kolonizazio garaian, Europa baliabide naturalen eta lanekuaren bila abiatu zen Afrikar Kontinentera. Europako nahiz kolonietako gobernuak konturatu ziren berauen interes ekonomiko eta politikoak modu arrakastatsuago batean lortzeko, indarra ezezik, tokiko gizataldeen sinismen, bizimodu eta ohiturei buruzko informazioa ere behar zutela. Helburu honekin bidali zituzten hainbat antropologo kultur exotiko horien inguruko ikerketa sistematiza-

tuak egitera. Politika zehatz honen emaitza dira, besteak beste, idazki antropologiko klasiko asko. Edward Evans-Pritcharden kasua dugu adibidez, *The Nuer* (1940) bere monografia famatuaren hitzaurrean bertan aipatutako errealitate horri aipamen esplizitua egiten diolarik ere:

“*Emprendí mi estudio de los Nuer a petición del gobierno del Sudan Angloegipcio, que lo financió en gran parte y colaboró también generosamente en la publicación de sus resultados*” (Evans-Pritchard 1977: 13)

Monografia honen edukari erreparatuz ordea, britaniar gobernuaren helburua zein izan zen erraz asma daiteke. Tokikotasunaren inguruko deskripzio zehatzekin batera mapa ugari jaso zituen ere. Europear boterearentzat Afrikar kontinenteko lurraldearen inguruko informazio hau ezinbestekoa izan zen kolonien antolamendua eta jabetza kudeatzeko.

Ipar Ameriketako kasuan lehen antropologoaren zeregina galtzear zeuden tokiko kulturen inguruko bitxikeriak jasotzea izan zen. Zentzu honetan Lewis Henri Morganen (1818-1881) lana aipatu behar da. Eboluzionismo unilineala eskolaren teorizatzaile nagusiak iroquiaren inguruko lehen ikerlan antropologikoa ekoiztu zuen. Honen emaitza *League of the Iroquois* (1851) lana izan zen.

Edozein kasutan, estrategia politikoei erantzuteko edo erabat suntsitutako kulturenganako azken adeitasun keinua erakusteko bazen ere, antropologiak bere sorreran testuinguru soziopolitikoari zeharo lotuta egon zen. Honela izan zen ere euskal antropologiaren kasuan.

3. LEHEN PRODUKZIO ANTROPOLOGIKOEN TESTUINGURU SOZIOPOLITIKOA.

Euskal Herriak bizi izan dituen eraldaketa soziopolitiko eta ekonomikorik gogorrenak XVIII. eta XIX. mende bitartean eman ziren. Fenomeno honek, garai-ko produkzio kulturean erabateko eragina izan zuen.

XVIII. mendearen amaieran Erregimen Zaharraren krisia eman zen, prozesu honen sinbolorik aipagarriena gerrate karlistak izan zirelarik. Euskal Erregimen Zaharra aipatzerakoan, derrigorrez, euskal Foruetaz hitzegiteak suposatzen du. Euskal gizarte tradizionalaren hiru ardatz nagusiak Jaungoikoa, Erregea/Aberria eta Etxea/Familia ziren. Hiruki honen hiru ertzen arabera definitzen zen garaiko gizartea eta kultura. Gizarte zientzietan bi jarrera kontrajarri garatu dira honen interpretazioan; tradizionalismoarena eta honen kontrako.

Tradizionalismoaren bibliografiarik interesgarriena, Foruen desagerepenarekin batera sortutakoa izan zen. 1876. urtean, tradizionalisten ondoeza eta haserre mina sentimendu batekin nahastu ziren garaiko hainbat lanek erakusten duten moduan². Lan guzti hauetatik ondorioztatu dezakeguna, Foruak euskaldunen konstituzio propioa zirela, da, ez ordea liberalek aipatzen zuten moduan, pribilegio hutsak. Gaztelako Erreinuan sartu baino askoz lehenagokoak ziren:

“*Fueroak*’ Errege Jaunak emanak oi ziran-errien sortzean eta emanak-; bañan ‘Fueroa’, Euskalerrriak berea zuen, ez inork emana. Berea; Erregeak baño lenagokoa; ez Erregeak emana; Euskalerrriak Errege Jaunai berai ezarria baizik, eta Errege Jaunak apalki gordea ta gordeerazia... Fueroak ez bezala... Euskalerrriaren Fueroa, Euskalerrriaren Lege Zaharra, etzuan gure erriak inork emana, berak bere errietan sortua baizik. Lege ura, gure Euskalerrriaren bere Jabetasuna zan. Euskalerrriko batza ‘soberanoen’ soberanotasuna” (Lizarraspi 1956:71).

Beraz, gauza bat zen euskal probintziek Gaztelako erregearekin sinatutako akordio idatzia eta beste bat, akordio hori baino lehenagotik existitzen zen (ahozko) euskal Lege Zaharra.

Erregimen Zaharreko euskaldunak sinisdunak, zintzoak, langileak, abegitsuak eta leialak moduan aurkeztu izan dira historian zehar. Ezaugarri guzti hauek euskal Lege Zaharratik zuzenki zetozen:

“*Mediante este pacto ha tenido el pueblo euskaro el raro privilegio de ser el único que a través de los siglos ha podido presentar al siglo actual su constitución primitiva, conservando íntegro el depósito de sus venerados Fueros y de sus leyes consuetudinarias. En medio de las ruinas de tantos pueblos que parecían destinados a morir; de tantos y tan poderosos imperios que se hundieron en el polvo de la nada para no volver a reaparecer; y de tantas y tan diversas civilizaciones que han desaparecido y pasado sin dejar casi huella de lo que fueron, el pueblo vascongado es el único en el mundo, lo reptimos, que ha podido sobrenadar, permaneciendo incólume, entre el cúmulo de ruinas que cubren el universo. ¡Secretos impenetrables misterios de la providencia de Dios! No es fácil adivinar ni prever cuál será el destino que Él tenga reservado a este pequeño y reducido rincón, independiente y libre desde su origen y jamás humillado ni conquistado por nadie, ofreciendo en el hombre pensador ejemplo tan grandioso*” (Ramery 1896: 58-59).

² Zentzu honetan aipatzekoak dira besteak beste, Joaquin Herran Uretaren *La cuestión de los fueros: ligeros apuntes en defensa de las instituciones vascongadas* (1876), Hermilio de Oloriz Azparrenen *Fundamento y defensa de los fueros* (1880) edo eta Liborio de Rameryren *El liberalismo los Fueros Vascongados* (1896). Horretaz gain, ohikoa zen ere Foruen aldeko idazkiak irakurtzea *El Fuerista* edo *Euskal-erria* bezelako aldizkarietan.

Aipamen honetatik euskal Erregimen Zaharreko gizartearen inguruan aski zabaldua zeuden hainbat ideia plazara daitezke. Alde batetik, euskaldunak Jaungoikoatik hurbil bizi zirela delako ideia ageri da. Modu batean, euskaldunen etorkizuna Jaungoikoak berak zuzenean erabakitakoa dela, alegia. Bestaldetik, euskaldunak betidanik aske bizi izan direlako ideia ageri da. Ez dira sekulan beste herri edo zibilizazioengatik menperatuak izan. Hirugarrenik, eta aurrekoatik eratorritakoa dena, euskaldunak ez direla sekulan beste herri edo kulturatako biztanleekin nahaztu. Horren ondorioz, jatorrizko arraza eta kultura mantentzen jarraitzen dute euskaldunak. Bukatzeko, Rameryk bertako nahiz kanpoko pentsalarientzat euskal kultura ikergai abantailatsua dela argudiatzen du, beste kulturekin konparatuz, bere izaera hoberen mantendu duena izan delako. XIX. mendearen hasieran Europako hainbat pentsalariak kolonietako indigenak ikertu beharrean, 'barruko' indigenak ikertzea erabaki zuten. Modu honetan, Europako jatorrizko giztaldeak nekazal testuinguruan bilatu zituzten. Orduan, talde nortasuna landa testuinguruan guztiz finkatuta zuten euskal kultura aztergai pribilegiatua bilakatu zen Europako hainbat kronistentzat ere.

Euskal kultura landa testuinguruarekin zuzenki lotua egotearen arrazoi nagusia gizarte tradizionalan etxeak (baserria) eta familiak izan zuten garrantziaz dator. Etxea ematen zion nortasuna bertan bizi zen familiari zeinak, askotan, baserriaren izena hartzen zuten abizenatzat. Sistema ekonomiko autarkiko horretan nekazaritza eta abeltzantza ziren iharduera ekonomiko garrantzitsuenak. Honengatik eta baita mendi zonaldeko paisaiaren kutsu exotiko eta mistikoagatik ere, euskal senaren muina baserri testuinguru honetan kokatu zuten garaiko bidaiari eta idazleek.

Interpretazio tradizionalisten kontrako teoria aurreko irudi horretatik abiatzen da ere. Teoria honen aburuz, Erregimen Zaharreko gizartearen inguruan nahiz euskal Foruen inguruan eraiki egin den ikuspegi mugatua, pentsamendu erromantizista lehenago eta nazionalismoa beranduago, sortutakoa da. Mikel Azurmendi (1993), Jon Juaristi (1987) edo Carlos Martínez Gorriaranen (1993) aburuz, euskal literatura historikoak Erregimen Zaharreko euskal baserriaren izaera eta nortasuna subjektiboki eraikitzen lagundu zuten. Gainera, euskaldunen sorrera eta jatorriari buruz hitzegiten denean, hau mito sortzaileren bati erreferentzia eginez egiten dela esaten du ere. Pentsalari hauen aburuz, euskaldunak beste zibilizazio eta kulturekin inoiz nahaztu ez izanaren ideia eta horren ondorioz, betidanik aske bizi izanaren teoria, mito tubalista edo baskoiberistaren eraginatik dator. Mito honen lau oinarriak hauek dira. Lehenik eta behin, euskaldunak antzinako gizatalde batetik zuzenean sortu zirela, Tubalen (Noeren biloba izan zena) leinukoetatik eta bere ondorengoak diren Kantauriarretatik. Bigarrenik, gizatalde hau bere lurraldean isolaturik bizi izan dela kanpotarren erasoetatik at eta honela, bere odol garbitasuna mantenduz. Hirugarrenik, euskara, antzinako hizkuntza dela eta

beraz, orain arte baieztatutakoaren frogarik argiena. Azkenik, euskalduna odol garbiko komunitatea dela, kristaua, eskubideak eta Foruak dibinitatetik zuzenean jasotzen dituen. Ondorioz, teoria kontra tradizionalistak Erregimen Zaharreko gizarte idiliko hura erromantizismoak lehenago eta nazionalismoak beranduago erakitako konstruktio sozial eta ideologiko hutsa baino ez dela argudiatzen du.

Aurreko testuingurua kontuan hartuz, esan beharra dago modernizazio prozesua Euskal Herrian ez zela bat ere baketsua izan. Horretarako, hiru gerrate karlista pasa eta Foruak indargabetu behar izan ziren. Guzti honen ondoren, bertako nahiz kanpoko pentsalari askok euskal kulturaren sena galtzear zegoela sinistuz, gizarte tradizionalaren ezaugarriak erabat galdu baino lehenago horiek jasotzeari ekin zioten. Liberalismoa nagusi zen garai politiko hartan gizarte tradizionalaz ihardutea berriz, European aski zabaldua zegoen sentimendu erromantikoaren ezaugarriak nagusia izan zen. Interes eta grina honekin hasi zen, hain zuzen ere, euskal antropologiaren arestiko garaia delakoa.

4. SENTIMENDU ERROMANTIKOAREN LORATZEA EUSKAL ANTROPOLOGIAREN ARESTIKO GARAIAN.

Liberalismoarekin batera, honekin zetozen aldaketen kontrako sentimendua loratu zen ere Euskal Herrian. Hirietako industrializazio azkarrak biztaleen deserropena ekarri zuten eta horren ondorioz, herria idealizatzeko joera. Sentimendu hau horren gogorra izan zen, euskal sena eta nortasuna lehenago ez bezala tradizioarekin loturiko testuinguru galduetan bilatu zela.

Dagoeneko aurreratu dudan bezala, aipatutakoa XVIII. mende bukaeran eta XIX. mende hasieran Europa osoan ematen ari ziren eraldaketa politiko eta soziologikoetatik ezin dugu aldendu. Hasieran artearen esparruan (literatura, margoa, musika, e.a.) sortu zena laister bilakatu zen teoria filosofiko batean. Erromantizismoak ordura arte nagusi izan ziren arau zorrotzekin apurtzea zuen helburu. Zorroztasunaren ordezkari, sentimenduen adierazpena eta subjektibitatearen produktzioa aldarrikatzen zuten. Bestalde, herriarengana hurbiltzeko joera sendotu zen ere azterlarien artean. Joera berri horri esker, ahozko material ugari jaso egin zuten; esaera zaharrak, bertsoak, kondariak, e.a. Belen Altunaren aburuz, erromantizismoaren ezaugarri funtsezkoa atzera begiratzea eta nazioaren iragana goraiatzeko pasartean bila aritzea da (2003). Helburu honetarako asmatutako formularik aproposena dio Altunak, hizkuntza, tradizioa eta herri-espirtua modu koherentean elkarjotzea izan zen. Modu horretan, artean nahiz garaiko pentsalarien lanetan testuinguru herrikoiak eta paisaia exotikoak nagusitu ziren. Kultura arrotz, misteriotsu eta fantastikoak bilakatu

ziren hauen aztergaiarik aipagarrienak. Europako zirkulu intelektual horientzako, Euskal Herriak halako ezaugarriak ederki betetzen zituen.

Ikuspegi erromantiko honi jarraituz Euskal Herrira beraien hausnarketak egitera etorri ziren europearren artean Wilhem Von Humboldt (1801) alemaniarra, Michel Francisque (1857) frantsesa eta Wentworth Webster (1879) ingelesa ditugu. Ikuspegi erromantikoari jarraitu zioten bertako pentsalarien artean berriz, Juan Ignacio Iztueta (1824, 1847), Jose María de Goizueta (1851) edo eta José Antonio Mogel (1881) ditugu.

Hasiera batean euskara bihurtu zen euskal erromantizismoaren ikergairik gorena. Euskara jatorrizko hizkuntza zen heinean, euskaldunen mundu ikuskera, erlijioa eta espiritu nazionala ere gordetzen zuela uste baitzen. Modernizazio prozesua eta hirien industrializazioa eta gero, ordea, baserria bilakatu zen euskaldunen arketipoa hoberen erakusten zuen sinbologia. Nekazaria, berriz, tradizioaren jarraikortasunaren zaindaria. ‘Betiko’ bizimoduaren edo bizimodu ‘naturala’-ren ordezkari bihurtu zen gizartearen begietan.

Euskalduna antzinatik datorren arrazakoa, baserritarra eta jatorrizko hizkuntza euskara duena bezala definitzearen joera, mugimendu fuerista eta erruralistari Europako erromantizismoarena gehitu zitzaionean sortu zen. XIX. mendetik aurrera, euskal kulturaren jatorria baserrian eta ondorioz, Euskal Herriko atlantiar isurialdean sakabanatutako habitatean kokatu zen teoria mailan. Tradizionalismo herritarraren goraiapamen honetan dago, beraz, atlantiar-mediterranean isurialdeen arteko lehen haustura. Geroago, XX. mendean zehar eta antropologiaren sistematizazio garaia- ren ekarpenei esker, hauspen hau geroz eta handiagoa egin da.

Jarraian euskal antropologiaren arestiko garaia honetan uztartutako ikergaietaz eta aintzat hartutako ikuspegi soziogeografikoaz mintzatuko naiz. Horretarako, garai honetako hiru idazleen eta kronisten lanak aztertuko ditut eredu gisa; Juan Antonio Mogel, Wilhem Von Humboldt eta Ricardo Becerro de Bengoa. Lehenengoaren lanak modernizazio prozesuak ekarritako euskal gizartearen haustura ezinhobeto islatzen du. Bigarrenak, Europako erromantizismoaren ordezkaria izan zen XIX. mendeko Euskal Herrian. Hirugarrena berriz, mediterranean isurialdean euskal senari buruz ekoiztutako diskurtsoaren adierazlea da.

5. PERU ABARKAREN EKARPENAK EUSKAL ANTROPOLOGIAREN SORRERARA.

Peru Abarka (XVIII. mendearen amaiera) da, dudarik gabe, Juan Antonio Mogelen lanik garrantzitsuena. Mogel Eibarren jaio bazen ere, urte ugari bizi

izan zen Markinan jesuita zelarrik, horregatik bizkaieraz idazten zuen. Bere lanetan hausnarketa erlijiosoak, ikerketa filologikoak eta garaiko bizimoduak jasotzen ditu. Guztien artean aipagarriena, esan bezala, *Peru Abarka* dugu, elaberria eta etnografia sakonaren artean kokatzen den idazkia, alegia.

Peru Abarkan, zeharka bada ere, garaiko testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoari buruzko deskripzio sakona egiteagatik lan aurre etnografikotzat hartzen dut idazki honen helbururako. Bere argitarapen momentua deigarria da zentzu honetan. Mogelen lana bera hil eta gero argitaratu zen, 1880. urtean konkretuki, *Beti Bat* Bilboko aldizkari karlistan, hain zuzen ere. *Peru Abarkak* karlismoak defendatzen zituen ideiak eta mundu ikuskera modu literario batean plazaratzea egiten zuen posible. Elaberri honen ardatz nagusiak, karlismoaren bezala, tradizionalismoa, Jaungoikoa, Foruak eta euskara ziren.

Peru Abarkaren gaia gorena Erregimen Zaharreko euskal kultura da zeina askotan, egileak bizkaitar kulturara murrizten duen. Aterki zabal honen azpian beste azpi gai batzuk lantzen dira; baserri mundua, kristau fedea, euskal morala, herri nortasuna eta euskara. Hauen trataerari erreparatuz erraz antzeman daiteke egilearen asmoa ez dela bakarrik horien inguruko deskribapena egitea. Mogelen intentzioa aldaketa sozialaren aurrean sistema tradizionalaren goraiapamena egitea da. Seguruena, ikuspegi honetan aurkitu zuten karlistek zeharo egokia *Peru Abarkaren* lana beraien proiektu politiko eta sozialerako.

Elaberriaren bi protagonistak Peru eta Maisu Juan dira. Horiatariko bakoitzak garaiko bi testuinguru kultural eta sozioekonomiko kontrajarrien adierazle dira. Lehenengoa baserritarra eta bigarrena, berriz, barberua edo garaiko medikua. Maisu Juan gizon apaindua da, Madrilan ikasia eta herrian (ez baserrian) bizi dena. Hau da, modernizazioaren produktua da. Hala ere, Maisu Juan ezjakitun moduan agertzen da Peruren aurrean. Istorioaren trama, baserritarrak medikuari euskal kulturaren jakintza eta xarma osoa egun gutxitan erakustean datza.

XIX. mende hasierako euskal gizartearen bi ikono kontrajarriak dira *Peru Abarkaren* istorioaren protagonistak. Idazleak bakoitzari atxikitutako esanahietan eta zentzuan antzeman daiteke idazkiaren helburua. Baserritarra ezaugarri positiboz beteriko gizona da; gizon zintzoa, fededuna, langilea eta eskuzabala. Etxea eta familia dira berarentzat ardatzik nagusienak eta biak Jaungoikoa eta Foruen araudiaren arabera gidatzen ditu:

“(Peru)- Iñoren basora orri bat kenduten etxako, bai zaindu ondo geureak. Orregaitiño Jaungoikoak ematen deusto gauzea ugari; topin ona beti izaten da; ilten dogu lauoiñeko gizona, idi lodi zezin ederra dabena. Euren denboretan egoten da ian al baino

gehiago castaña ta sagar. Urte guztian esaterako daukagu eszena ta aurreratuten ditugu diruak lagun-duteko gero umeari aututen dabeen bizieran.

(Maisu Juan) – Peru, zorionekoa zu! Erregea bera ezta zu baño obeto bizi”

(Mogel 1981: 59)

Eta beste pasarte askotan baserritarraren lana gorai-patzen jarraitzen du Mogelek Jaungoikoarekin elkarlotzera iritsi arte; gizon emakume puru, duin eta dibinitatetik gertu egongo balira moduan aurkezten ditu garaiko baserritarrak.

Momentu batean pertsonaia nagusiak, Peru, bere arbasoak bera baino hobeto bizi zirela onartzen du. Beraien lautasuna Peruren garaikoa baino handiagoa zela. Hortaz, euskal gizartean, hura erabat eraldatu baino lehenago hainbat aldaketa eman zirela aipatzen da eta haustura horren arduradunak izendatzera ausartzen da ere: “*galdu gaitue arrotz eta erdaldunak, ta tximiño eginik iarraitu gura deutsegu aen asmoei*” (Mogel 1981: 61). Arazo honekiko ardura behin eta berriz agertzen da bere lanean eta errealtate hau adierazteko, Mogelek, erdalduntze prozesua hartuko du sinbolo gorenatzat.

Dagoeneko aipatutakoatik erraz antzeman daiteke zein den Mogelek bere lanean aintzat hartzen duen unitate geografikoa; Bizkaia eta konkretuki, Bizkaiko baserri-etxeak. Baina momentu batean *Peru Abarkan* Euskal Herriko beste zonaldeetako bi gizon agertzen dira; Gipuzkoakoa eta Nafarroa Beherakoa. Keinu honekin euskal kultura atlantiar isurialdera murrizteko bere joera islatzen du. Gainera ikuspegi hau erabat zuztartzeko da aurrerago mediterranean isurialdeari buruz egiten duen aipamenari erreparatzen badiogu ere. Hau metafora baten bidez egiten du Mogelek. Ardoaren metafora, alegia.

Ardoari, Euskal Herriko mediterranean isurialdearen sinboloa, euskal sena arriskuan jartzen dituzten bi gaitasun egozten zaizkio *Peru Abarkan*. Lehenik eta behin, ardoa tokiko edaritik kontrajartzen da, hau da, sagardoatik. Ardoaren komertzioak sagardoarena gutxitu egin duela eta honekin batera, tokiko ohitura eta ekonomia: “*Len ozta ezaututen zan matsardaoa. Sagasti asko zirean, ta erriko ardao edo sagardoaz igaroten zirean bizkaitar ta beste euskaldunak*” (Mogel 1981: 60-61). Ardoa, arrotzak bezala, euskal kultura kaltetzera heldu da. Bigarren aipamena zentzu honetan egiten da. Ardoak gizon bizkaitar askoren hondamena ekarri duela aipatzen du Mogelek. Izan ere, Euskal Herrira heldu zenetik bizkaitar asko euren dirua gastatzen zuten tabernatan moskortzen; “*O, zoriogaitzoko ardantegiak! Eta zeinbat kalte egiten dozuen! Bizkairik geienek Erriojara daroa dabena eta eztabena*” (Mogel 1981:59).

Peru Abarka XVIII. mende bukaerako euskal gizartearen deskripzio sakona egiteagatik har dezakegu lehen berri etnografikoen eredu gisa. Gainera, aurrerago euskal antropologiak garatu zuen joera berdinen azterna antzeman daiteke bertan ere. Lehenik eta behin, euskal kulturaren muina Euskal Herriko atlantiar isurialdean kokatzea. Bigarrenik, euskal mediterranean isurialdea arrotza balitz moduan tratatzea. Arrotza ezezik, mediterranean isurialdetik eratorritako ohiturak eta bizimoduak euskal kultura bera kaltetzen zituztela sinistea, alegia. Ikuspegi zehatz honen ondorioak XX. mende hasierako euskal antropologia baldintzatu zuten haren sendotze prozesuaren ikuspegi garrantzitsua izatera iritsi arte.

6. DIARIO DEL VIAJE VASCOREN EKARPENAK EUSKAL ANTROPOLOGIARA.

Wilhem Von Humboldt alemaniarra Mogelen garai berekoa zen. Espainian oporretan zegoela berehala piztu zitzaion Euskal Herriarekiko interesa. Lehenengo bidaia horretatik bueltatu eta urte eskas batera berriz ere itzuli zen Euskal Herrira, oraingoan interes zientifikoak bultzatuta. *Diario del Viaje Vasco* (1801) lana Humboldtnek Euskal Herrira egin zuen bigarren bidaia horretan idatzitako egunerokoaren argitalpena da. Lehenengo edizioa Alemanian argitaratu zen eta hemen askoz beranduago ikusi zuen argia Telesforo de Aranzadik Humboldtren lana erderara itzuli zuenean. Egunerokoa bi zatitan argitaratu zen, lehenengoa 1922. urteko *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV) eta bigarrena hurrengo urteko edizioan.

Humboldt Euskal Herriarekiko piztutako interesa garaiko Europako erromantizismoaren eraginatik zetorkion. Bertako zirkulu landuetan, Europa barruko lurralde exotikoak eta mistizismoz beterikoak bisitatzea ohikoa bihurtu zen. Irizpide hauei jarraituz, Euskal Herria leku aparta zen, Humboldtentzat ezezik, lehen aipatutako beste bidaiari askorentzat ere.

Bidaiari eta idazle alemaniarren ikergai nagusia gizakia izan zen, hau modu holistikoa batean aztertzen zuelarik. Modu honetan, egileak ekarpen handiak egin zituen euskal kulturaren ezagutzara. Humboldtnek *Diario del Viaje Vascon* literaturaz, pedagogiaz, historiaz, politikaz, filosofiaz, e.a. askoz hitz egiten du. Gai guztiak heltzeko, ordea, euskara erabiltzen du abiapuntu. Hau da, bere lanaren ikergai nagusia euskal kultura bera izanik, horri ekiteko hainbat azpi ikergai lantzen ditu. Iñaki Zabaleta (1995) historiagileak ikergai hauek bost taldetan banatzen ditu; fisonomia, historia, herri kultura, organizazio soziopolitikoak eta hizkuntza.

Humboldt izan zen euskal fisonomia nazional batez hitz egin zuen lehenengo aditua. Ateratako ondo-

rioak zentzu honetan ez ziren ikerketa antropometrikoatik eratorriak bai ordea, behaketa lan fin batetik lortutakoak. Emakumea “*rasgos firmes, puros, con vestigios de vigor*” eta gizona berriz, “*intrépido, musculoso, ágil, alto, grandes rasgos viriles*” (Humboldt 1923: 207-208) dira. Gaia honekin loturiko aspekturik interesgarriena Humboldtten aburuz, ezaugarri fisiko hauek tokiko naturak eta lanak produzitutakoak direla da. Paisaiak garrantzi berezia dauka alemaniarren lan guztian zehar. Euskal paisaiaren adierazgarriak dira erliebe menditsuak, basoak, hezetasuna eta baserri sakabanatuak, besteak beste. Paisaia erromantiko honen deskripzio ugari agertzen dira bere lan guztian zehar. Hona hemen adibide bat:

“*Otra vez paseos a Caserios. Paisaje encantador. Senderos serpenteantes por frescos robledales atravesados por pequeños fosos de agua; por todas partes apiñamiento de la vegetación, todo rastreado por la espesa yedra, los puentes, los robles, los setos y muros. Abajo hermosa yerba, olor aromático. Muchos robledales cerrados con setos vivos. La casa en medio allí dentro. De repente se ve luz, sale alguien un risueño sembrado, cercado a su vez de árboles, se deja ver fuera de la casa y detrás de los altos riscos sobre los que descansan nubes de mediodía, hacia el norte, la hilera de montañas más suaves hermosamente destacadas del sereno cielo, hacia el noroeste, donde ambos corren más cerca una de otras, huecos más bajos hacia el mar, radiante arbol de aquella parte*” (Humboldt 1922: 211-212).

Irakurlea dagoeneko ohartuko zenez, bertan aipatzen den paisai berriz ere Euskal Herriko atlantiar isurialdeari dagokiona da. Aurrerago ikusi ahal izango dugun moduan, mediterranean isurialdeari buruz egiten dituen deskripzioekin aldentzerakoan orduan honen subjektibitatea eta asmoa nabarmenagoa izango da oraindik.

Humboldtten lan honetan aipamen historiko ugari aurkitu ditzazkegu ere. Bereziki, euskal probintziak Gaztelarekin mantendutako erlazioak azaltzen dituztenak. Aipamen historiko hauei esker, garaiko errealitate soziopolitiko eta ekonomikoari buruzko deskripzio sakonak aurkitu ditzazkegu:

“*El gobierno español trata a las provincias vascongadas con dureza y envidia. Principalmente estorba toda industria poniendo terribles impuestos sobre los artículos en ellas fabricados... en 1720 quiso el gobierno introducir Aduanas en la costa, pero el país se alzó y sin entrar más exactamente en la cosa, la palabra Aduana, aduana cet fue un santo y seña. El pueblo ahorcó a varias personas de distinción, marqueses, cet, que tenían sospechas*” (Humboldt 1922: 651).

Ezin zuen XIX. mendearen hasieran Euskal Herriak Gaztelako koroarekin bizi zuen tentsio egoera aipatu gabe utzi. Aipatu eta jarrera hartu:

“*Los castellanos y vascongados son unos y otros rudos. Pero en el vascongado es más rudeza, en el castellano es más barbarie. En el primero más retozo, en el segundo más dureza. En el primero más arrogancia del bienestar, en el otro más aspereza de la desesperación sobre pobreza y opresión. El vascongado es un pueblo alegre y feliz, el castellano triste, oprimido y doliente*” (Humboldt 1923: 208).

Lan osoan zehar euskaldunetaz aurkezten duen irudi positiboagatik bilakatu egin da *Diario del Viaje Vasco* euskal kulturaren ezinbesteko markadorean.

Esan bezala, Humboldtten bere lanean jorratutako hirugarren gaia aipagarria herri kultura deritzona da. Baionan, Donostian, Gasteizen eta Bilbon egon ondoren eta bertako hiri kulturari buruzko deskripzioa jaso eta gero, ez dago dudarik bere lanaren azalpenik sakonena landa testuinguruari dagokionak direla. Landa testuinguruko lanbidetaz sakon aritu zen (nekazaritza eta arrantza nagusiki) eta baita ospakizun, jazkera, erlijioa eta lurralde antolaketa, besteak beste. Horrexegatik, *Diario del Viaje Vasco XVIII*. mende bukaerako euskal gizartea aztergai duenarentzat "erreferentziatzeko lana da".

Laugarren ikergaia euskaldunon antolakuntza soziopolitiko da. Eskualde bakoitzeko antolakuntza soziala eta politikoa luze itxuratu zituen Humboldtten lan honetan. Merindadeak, eleizbarrutiak, kofradiak, anaiarteak, e.a. bezalako kontzeptuak jaso eta azaldu zituen garai horretako antolakuntza sozialari buruzko informazioa plazaratuz.

Lehenago aipatutako ikergai guztiekin batera hizkuntzarena ere tartekatu zuen. Horrexegatik Humboldtten lanak hizkuntzalaritzari ekarpen handiak egin dizkio garaiko toponimoak, dantza eta bertsoak edo eta nakazal tresnen izenak modu sistematiko batean jasoz. Aspektu metodologiko aipagarri bat islatzen du honek izan ere, *Diario del Viaje Vascon* jasotzen diren euskal hitz guztiak tokikoekin hitz eginenez jaso baitzituen: “*Por la mañana fui a pasear al campo. Hablé con los labradores, y, como vieron que yo sabía algo de vascuence, se esforzaron en hablar conmigo de todas maneras*” (Humboldt 1922: 648). Hona hemen metodo etnografikoari egindako erreferentziaren adibidea. Alde batetik, informazioa lehen mailako iturrietatik jasotzearen garrantziaz eta bestetik, aurrekoa posible egiteko bertakoen hizkuntza ikastearen eta erabiltzearen beharraz ari da modu batean edo bestean.

Mogelen *Peru Abarkarekin* ikusi dugun moduan, *Diario del Viaje Vascon* nagusi den unitate geografikoaz hitz egingo dut atal honekin bukatu baino lehenago. Hurrengo aipamenetik erraz antzemango dugu Humboldtten ikuspegia zentzu honetan:

“*De Vitoria por Villa Real y Ochandiano. Hasta allí camino desagradable, región llana o colinas y montes pelados. Ochandiano el primer pueblo en el Señorío. Después de Ochandiano se hace la región mejor y poco después bellísima*” (Humboldt 1922: 255).

Mediterranean isurialdeari eginiko aipamen bakarra da hau eta gainera esandakoaren aburuz, ondoriozta dezakegu ez daukala horretaz ezer gehiago esateko intenziorik ere. Hiru hilabetez egon zen Euskal Herrian eta bakarrik hiru egun eman zituen Gasteizen. Hiriburuaz aparte, ez zuen Arabako beste herririk eza-gutu eta hau, bere lanean antzeman daiteke zeinetan ia mediterranean isurialdeari buruzko aipamenik egiten ez duen. Humboldték ere azkenean, euskal kultura atlantiar isurialdera mugatu zuen.

Lurraldetasunari buruz bada oso interesgarria iruditzen zaidan beste aspektu bat. Humboldték, Mogelen moduan, Euskal Herriari buruz hitz egin beharrean euskal probintziataz hitz egiten du. Izan ere, lehenengo kontzeptu hori XIX. mendean zehar jorratu baitzen. Hala ere, aurreko bi lanetan euskal abertzaletasuna ageri da modu batean edo bestean. Humboldték euskal ohiturak tokiko abertzaletasunarekin elkarlotu zituen. Erregimen Zaharra erreferentzi marko bilakatu zen aurrerago sortutako abertzaletasun sentimenduarentzat. Jose Urrutikoetxearen (1995) aburuz, Humboldték Euskal Herriko aniztasun paisajistikoa eta ondorioz, bertako bizimoduen aniztasuna hartzen zuen unitate baten osagarri bezala. Zentzu honetan, euskal probintzien gainetik herri nortasun bat antzeman zuen nahiz eta horren muina, beti ere, atlantiar isurialdeko paisaia exotikoan ezarri.

Humboldték euskal probintziek nortasun propioa zutela baieztatu bazuen, tokiko hizkuntza eta kulturari erreparatu izan zen batez ere. Tarteka ere, nolabaiteko ezaugarri fisikoak bazirela defendatu zuen ‘arraz’ hitza bera aipatu gabe. Hala ere, honen arduradun nagusia Andres Retzius anatomia ikertzaile suitzarra izan zen zeinak euskal arrazari erabateko lehentasun zientifikoa eskeini zion. Baina Humboldték lana bikaina bada euskal kultura delakoari testuinguru geografiko zehatz bat atxikitzen zaiatzeagatik izan zen. Orduan, Mogelek hasi eta Humboldtékin errotuz, ezagutza teoriko mailan euskal kultura delakoa Euskal Herriko atlantiar isurialdean kokatzeko joera hau XVIII. mendean bukaeran hasi zen eta harez gero, etengabe iraun egin du euskal kulturaren azterketa askotan. Joera honen ondorioak euskal antropologia disziplina-ren sorrera baldintzatzera iritsi zen ere.

7. RICARDO BECERRO DE BENGEOA KRONISTAREN EKARPENAK.

Seguruenik Arabako gizarteaz XX. mendera arte idatzi egin diren lanik aipagarrienak Ricardo Becerro

de Bengoarenak izan direla. Kronista honen lanetan erraz ikusi daiteke datu historikoak garaiko datuekin zein ondo elkarlotu zituen. Horregatik garaiko ezagutza antropologikorako ezinbesteko ekarpena dugu egile honen lana.

Becerro de Bengoaren lanetan gai arkeologikoak, historikoak eta etnografikoak aurkitu daitezke. Zentzu honetan bereziki aipagarriak dira kronistaren bidaia kuadernoak non bisitatutako paisaia eta gizataldeei buruzko deskripzio trinkoak egin zituen. Horien artean ere, euskal probintziak ageri dira eta ordura arte ez bezala, Arabak garrantzia berezia hartu zuen halako lanetan. Arabako probintziari buruz sakon aritu zen, bereziki, *El libro de Álava* (1877) eta *El romancero Alavés* (1885) lanetan. Becerroren lana aipatzea ezinbestekoa da garai hartan euskal mediterranean isurialdearekiko zegoen ezjakintasunarekin eta askotan ere, aurreiritziekin bukatzeko. Adibide gisa paisaiari buruzko honako hau: “*La provincia está rodeada de montes en toda su extensión, y cruzada por ellos en distintas direcciones*” (Becerro de Bengoa 1877:6). Beraz, Araban, gainontzeko euskal paisaian bezala, erliebe menditsua nagusi dela aipatzen du. Baina egia da ere, mendi kultura hori ageri den arren, Arabaren berezko izaera eta izena bera, erdialdean duen lautada zabal horretatik datorkiola: “*Álava... quiere decir ‘llanura inmediata a las montañas’*” (Becerro de Bengoa 1877:3).

Aurreko bi lanetan Arabako paisaiak sakon hitzgeiteaz gain, tokiko biztanleaz (emakumeak, irakasleak, gazteak...), instituzioaz (erlijioa, familia...) eta bereziki, Foruetaz mintzatzen da ere:

“*Los alaveses idolatran a su país; practican desde hace veinte siglos sus independientes y populares costumbres forales, cuya constitución jamás escrita pero jamás alterada, han aprendido como aprenden los preceptos agrícolas oyéndola de boca de sus padres y ejercitándola desde la juventud. Venera, más que respetan a las autoridades forales y tienen a su administración particular y general como lo es en efecto como la más sabia, la más sencilla, la más equitativa y la más noble de todas las administraciones*” (Becerro Bengoa 1877: 33).

Mota honetako aipamenetan agerian usten duen moduan, euskal gizartea bitan zegoen zatituta. Alde batetik, landa munduaren gizarte tradizional eta erromantikoa eta bestetik, modernizazioak aurrekoari eragin izandako eraldaketan esparrua. Hala ere, Becerro de Bengoak etnografiaren arestiko garaiko idazle guztiek bezala euskal sena gizarte tradizionalan kokatu bazuen ere euskaldunon jatorriari buruzko azalpenak bertan behera uzten zaiatu zen hasieran batean behintzat. Bere ustez euskaldunon jatorria Antzin Aroan bilatu behar da, konkretuki Caucasoan sortu zen Ibero edo Euscaro izeneko arraza batetik eratorritakoa zena (Becerro de Bengoa 1877: 41) eta

ez ordea, bertan garatu egin den tokiko arraza batean. Teoria honen aburuz, ekialdetik migratu zuten ondorengoak gara eta gure izena, euskaldunak, 'eguzki' eta 'aldunac' hitzetatik dator; eguzkiaren aldetik datozenak, alegia. Hala ere, esan beharra dago, Becerro de Bengoak bere hurrengo lan famatuan, *El romancero alavesen* (1885) zerbait leundu zuela aurreko ikuskera, horri kutsu erromantikoa gehituz. Hurrengo erromantzetan ikusi daitekeen moduan, euskalduna iberoa dela esaten jarraituko du baina orain, bere benetako jatorriarekin jolasten du eta modu horretan, euskaldunak mistizismoz beteriko herria dela defendatzen duen ikuspegiarekin bat egiten du:

*“¿Qué pueblo es este?, pregunta
el oriente, al encontrar
la raza que le detiene
en su carrera triunfal?”*

*Esta pregunta los siglos
en vano repetirán,
y del ibero el origen
el mundo nunca sabrá.*

*Lo sabe él mismo? Su historia
no se ha contado jamás;
su raza es raza distinta
de la ariana y del Turan;
Su lengua ni semejanza
con otras lenguas tendrá;
su espíritu independiente
con fiera tenacidad,
aunque se mezcle con otros
de ellos se ha de emancipar,
y al través de las edades
el Euskalduna (que tal
el ibero se apellida
a sí mismo, al indicar
la esencia de ese lenguaje,
que une a su raza especial)
ha de ser en raza y lengua
siempre el mismo:
Beti-bat”*

(Becerro Bengoa 1985: 11-12)

Deskripzio erromantiko honetan euskaldunon eta beronen lurraldearen aparteko izaera azpimarratzen du. Are gehiago, bata bestearen ondorioa dela pentsa daiteke ere. Eta jarraitzen du euskaldunon ausardiaz, indarraz, askatasunaz eta jainkoaz, hizkuntzaz eta berezko legearekiko fidelitasunaz mintzatzen. Guztiak, anai-arreba moduan, euren lurra eta askatasuna kanpo herrien aurrean defendatzen dutela esanez. Zentzu

honetan Arabak berezko garrantzia hartzen du kanpo herrien erasoak euskal probintzia guztien artean gehien jasan izan dituen izanik eta honen ondorioz, Euskal Herriko atlantiar eta mediterraneer isurialdeen arteko desberdintasunak historian zehar areagotuz. Ondorioz, bi isurialdeen arteko kultur ezberdintasuna erliebea eta paisaiaren eraginez eman omen da.

Becerro de Bengoaren lana aipagarria bada idazki honen helbururako, euskal antropologiaren arestiko garaiak mediterraneer isurialdean izan zuen ordezkape-na erakusten duelako da. Eta bi unitate paisajistiko eta ondorioz, kultura hauen arteko erlazioari buruz defendatzen duen tesia oso interesgarria da; atlantiar isurialdean euskal arraza, kultura eta hizkuntza kanpo eraginik gabe mantendu izana, Arabari zor zaio. Modu honetan aurretiko lanek probintzia honekiko erakutsitako ezaxola gainditzen zaiatzen da honek euskal kulturaren garapenean izandako garrantzia azpimarratuz. Araba herri eta kultura askorekin topatu izan da historian zehar. Honen arrazoi nagusienetariko bat, esan bezala, bere erliebean aurkitzen dugu. Garai hartan Gipuzkoa eta Bizkaiko erliebe menditsura heldu baino lehenago zegoen lautada handi bat zen Araba. Ezinbesteko pasabide historikoa izatetik datorkio probintzia honi, hain zuzen ere, herri eta kultura anitz askorekin harremanetan egon izana.

*“Las alabesas llanuras.
en el curso de los siglos,
paso obligado de gentes
de Galia a la Iberia han sido.*

*En la paz, seguras marchan,
como entre pueblo de amigos;
en la guerra... ¡cuanta sangre,
en ese paso han vertido!”*

(Becerro Bengoa 1885:37)

Kanpotik zetozen gizataldeekiko harremanen ondorioz askotan liskarrak gertatzen ziren Arabako pasabide horretan atlantiar isurialdera iritsi baino lehenago. Inguruko mendietan itxaroten zuten arabatarrek etsaia eta borrokarako orduan, lurralde laura jeisten ziren. Gudarako toki estrategiko honek, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia kanpo kulturetatik babestu izan ditu historian zehar:

*“Al pie de las montañas y en su falda meridional
hay un extenso llano y varios valles inmediatos a los
que dan acceso las cañadas y pasos que vienen del Sur
y Oriente, y en este llano y en estos valles, que componen
la provincia de Álava, verdadero foso, puesto al
pie del muro de la fortaleza vascongada, es donde se
han detenido para ser rechazadas, todas las irrupciones
extrañas”* (Becerro Bengoa 1872: 43).

Aurreko tesia irudikatzeko, Becerro Bengoak, Araban eragin handia izan zuten bi kulturetz hitz egiten du nagusiki; zeltei buruz eta erromatarrei buruz. *El romancero alabesen* (1885) luze azaltzen du nolakoa izan zen gaellen kontrako eraso. Zeltak, historian zehar beste herri askok egin zuten moduan, Arabako lautadatik pasa ziren Euskal Herrian ezartzeko asmoarekin. Arabarrak, gainontzeko euskaldunak bezala, mendiko jendea ziren eta Egino, Aratz eta inguruko mendietatik jeitsi ziren Zelten erasoaldia ekiditu asmoz. Gogor borrokatu zuten eta horren ondorioz, Arabako Lautadan hildako ugari egon ziren. Zeltak aurrera jarraitzen lortu zuten Euskal Herriko hainbat mendietatik inguruko bailaretara iritsiz. Kanpotarren erasoaldi honen ustezko arriskuaren aurrean, Becerro de Bengoaren aburuz, euskaldun guztiak batu ziren euren askatasuna defendatzeko:

*“Allí acude el basco rudo,
que el alto Pirene habita;
el goikoeuscoano animoso,
que en mar y tierra domina;
y el indomable beuskaino,
que antes muere que se humilla*

*Todos, al pueblo arabés,
su hermano, dan a porfía
gentes, armas y alimentos,
que son genio, fuerza y vida”.*
(Becerro Bengoa 1885: 26-27)

Aurreko aipamena adibide bat baino ez da, izan ere, Zelten erasoaldiaren kontra izandako borroka deskribatzen dituzten erromantze asko jasotzen ditu egileak eta guztietan, euskaldunak goiko gizaki bezala aurkezten ditu. Mendiko gizarte hau ohore handikoa da. Euren arteko elkartasuna nagusi da, batez ere euskal lurraldea kanpo erasoetatik babestua mantentzeko bada. Deskripzio historiko honek, Becerro Bengoaren aurreko lanak ez bezala, kutsu erromantiko esanguratsua hartzen du. Lehenago aipatu dudan moduan, kronista honek denborarekin bere pentsakeran eta ikuspegi politikoan jasan izan zituen aldaketen ondorio da hau. Izan ere, Becerro Bengoa zaharragoa egiten zen heinean, garaiko euskal errealitate soziopolitikoa dela eta, euskal foruen eta kulturaren babesle amorratua bilakatzen zen ere (Urdiain 1995:15).

Erromatarrek Euskal Herrian, eta zehazkiago esanda Araban, izan zuten presentzia luze hitz egin zuen Becerro Bengoak ere. Euskal Herria erromatarrek Iberiar penintsulara egin zuten lehenengo erasoaldiaz libratu bazen, Zelten kasuan bezala, mediterranean isurialdean kanpotar hauek gogor defendatu zirelako izan zen (Becerro Bengoa 1877: 46). K.a. 30 urtean, Euskal Herri osora iritsi baziren ere, nagusiki Araban finkatu ziren. Hala ere, erromatarren eragina bide

sareetatik hurbil baino ez zela nabaritu defendatzen du (Becerro Bengoa 1877:48). Edozein kasutan, Arabako bide sareak oso garrantzitsuak zirenez, eragin hau gogor nabaritu egin zen bertan:

“El trato constante con los romanos en esa gran línea de comunicación (Astorga-Burdeos), fue poderoso motivo para que los alaveses empezaran a imitar sus costumbres, a aprender su lengua, a imitar sus adelantos y a imitar otros notables caminos interiores de construcción análoga a la que veían, dando lugar en las centurias siguientes asentadas estas influencias con el contacto del pueblo castellano, en gran parte de la provincia desde el llano hasta el Sur y hacia el poniente, se usase el romance o lengua castellana y se establecieran esos caracteres en el traje, costumbres y hasta en el tipo que diferencia bastante el pueblo alaves del gipuzcoano y del vizcaino” (Becerro Bengoa 1872: 49)

Aurrerantzean Erromatarren eragina erabaikorra izan zen Araban. Gipuzkoan eta Bizkaian abeltzaintza eta artzaintza nagusi izaten jarraitu zuten bitartean, Araban berriz, nekazaritza eta merkataritza azkar ezarri zuten erromatarrek lurralde honen kokapen geografikoa eta paisaiaren ezaugarriak zirela eta. Iharduera ekonomiko berri hauen garapenarekin batera, tokikoek lautadak eta bailarak okupatu zituzten eta honek era berean, etxebizitzaren antolakuntza berria ekarri zuen. Herrixkek orain beste funtzio garrantzitsua bete behar zuten, defentzarena, izan ere Araba kultur askoren pasabidea izaten jarraitzen zuen. Guzti honek, tokiko ohitura eta bizimoduetan eragina izan zuen. Baita tokiko tipologia fisikoan nahiz hizkuntzan ere. Orduan sortzen dira euskal atlantiar isurialdea eta mediterranean isurialdearen arteko benetako haustura eta desberdintasun soziokulturalak. Euskal antropologiak behin eta berriz agerian utzi izan dituenak bere sorrera garaitik aurrera.

8. ONDORIOAK.

Euskal antropologia sortu zenetik, honek euskal kultura izan du aztergai. 1918. urtetik aurrera disziplina honek erabilitako behaketa unitatei eta aztertutako unitate geografikoei erreparatzen badiegu ordea, errealitatea deskribatzean ezezik, kulturaren irudi zehatz bat eraikitzen lagundu duela ere baieztatu dezakegu.

Hasierako euskal antropologiaren ikergai nagusia euskal etnia delakoa izan zen. Honen jatorria aurrehistorian sortutako Pirinear zonaldeko artzain kulturaren legoke (Altuna 1984; Barandiaren 1972, 1984; Barandiaran eta Manterola 2000; Leizaola 1984). XX. mendean zehar burututako ikerketa antropologiko gehienak hipotesi hau frogatzen zaiatu ziren eta honen ondorioz, euskal kulturaren ikuspegi hegemoniko bat eraikitzen lagundu zuten. Besterik ezean, euskalduna-

ren irudi honetatik aldentzen ziren beste bizimodu eta ohiturak ez zuten inolako interesik sustatu eredu kultural honen barruan. Hauen artean, bereziki, ia Araba osoa eta Nafarroako Hegoaldea non egitura ekonomiko, sozial eta kultural mediterranearra nagusi zen. Horregaitik, euskal mediterranean isurialde osoa euskal kulturaren irudi hegemoniko horrentzako bazterreko zonalde batean bilakatu zen eta honekin batera, ahazte zientifikoa. Erabilitako estrategia honengatik, euskal lehen antropologoek tokiko kulturari buruz lerraturiko ikuspegia eraikitzen lagundu zutela defendatu dut.

Euskal kulturaren inguruko interpretazio arbitrario horrek antropologiaren sorreran sendotu bazen ere, lehenago eratutako ikuspegi eta sentimendu bat eragindua izan zen. Berezi XIX. mendean zehar Euskal Herrian, gainontzeko European bezala, azaleratutako mundu ikuskera eta irizpide kultural batek eginarazia. Garai horretako hainbat idazle, kronista edo bidaiarien lanak aintzat hartzea ezinbestekoa da euskal antropologiaren jatorria sakonean ezagutu nahi badugu. Are gehiago, orduan ekoiztutako hainbat lanen balio etnografikoa dela eta, garai horri lehen berri antropologikoen garaia edo euskal antropologiaren arestiko garaia moduan har dezakegu. Garai honetan jorratutako ikuspegiak eta balioek ezinbesteko garrantzia izango dute antropologia disziplinaren sorrera sustatzerako orduan.

Euskal antropologiaren arestiko garaiaren ezaugarriarik aipagarriena europear erromantizismoak berarengan izandako eragina izan zen. Mugimendu artistiko eta intelektual erromantizista European aski zabaldua bazegoen ere, Euskal Herrian indar berezia hartu zuen Foruen abolizioak sustatutako mugimendu eta sentimendu sozialarekin bat egin zuelako garai hartan. Orduan, 'barruko indigenak' aztertzen jarri ziren Europako hainbat pentsalari eta bidaiariak 'betiko' bizimoduen bila abiatu zirenean. Foruen galeraren krisialdian bete bete sartuta, euskal intelektualen zati bat, modernizazio prozesuari erantzuteko asmoz, euskal arketipoa hoberen erakusten zuen sinboloa miresten jarri zen. Tradizionalismo herritarraren gorai-pamen honek europear erromantizismoan lagun lehiala aurkitu zuen. Testuinguru honetan ekoiztu ziren, hain zuzen ere, garaiko lan esanguratsu asko zeintzuk betiko bizimodua laudatzen zuten.

Garaiko erromantizismoak landa testuinguruetakoa alegiazko paisaia exotikoak bilatzen zituen. Euskal atlantiar isurialdean habitat sakabanatuta (baserria) eta mendi zonalde bihurtutako gertu kokatzen zen kostalde malkartsua aurkitu zuten Europako zirkulu intelektualek (Altuna 2003). Bestalde, erromantizismoak tradizioa erabili zuen herrien historia ezagutze-ko baliabide gisa. Euskal folklorearekiko interes

honek, antzinako bizimoduak eta ohiturak balioan jarri zituen, industrializatutako hiriaren bizimoduak indargabetuz (Aguirre 1993). Edozein kasutan, joera erromantizista honek Euskal Herriko atlantiar isurialdeko landa testuinguruari eta tokiko bizimodu tradizionaleri eskeinitako arreta euskal antropologiaren sorreran eragin zuen esan bezala. Horregatik, lehen euskal antropologoek ahalegin guztiak euskal arraza eta kulturaren jatorria aurkitzera zuzendu ziren, horretarako atlantiar isurialdeko mendi zonaldeak bakarrik aztertu zituztelarik.

Aurreko panorama horretan, zein izan zen garaiko intelektualek Euskal Herriko mediterranean isurialdeari buruz aurkeztutako jarrera? Idazki honetan aztertutako autoreen lanetatik hiru jarrera mota eman zirela ondoriozta dezakegu:

1. Lehenengo jarrera mediterranean isurialdean arrotza moduan tratatzean datza. Arrotza ezezik, inbaditzailea ere, tokiko kultura kolokan jartzen dituen hizkuntza, ohitura eta bizimoduen lurraldea izanik.
2. Bigarren jarrera atlantiar isurialdeko mendiko kultura mugaraino goraiatzean datza eta aldi berean, mediterranean isurialdeko bizimoduei inolako jaramonik ez egitea. Honen ondorioz, zonalde hau euskal kulturaren definizioatik kanpo geratzen da.
3. Azkenengoa mediterranean isurialdean jatorrizko euskal kulturarekin bat ez datorrela onartzea eta aldi berean, hau baldintza historiko eta geografikoei erreferentzia eginez justifikatzean datza. Zonalde honetako biztanleri duintasuna euskal kulturaren muina kanpoko erasotzaileengandik behin eta berriz babestu izanagatik datorkie orainoan.

Aurreko eredu behin eta berriz errepikatzen da euskal antropologiaren arestiko garaiko lanetan ezezik, antropologiaren sistematizazio garaikoetan ere. Are gehiago, egungo euskal antropologiaren adar batek oraindik aurreko posizioetatik abiatzen da bere azterketak egiterako orduan. Horregatik, mediterranean isurialdeko area kulturaletaz egindako ikerlan guztiak ez dira nahikoak izango desoreka zientifiko hau zuzentzeko orduan.

9. ESKERRAK.

Artikulu hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko ikerketa aurre doktoralerako dirulaguntzen markoan burutu zen.

10. BIBLIOGRAFIA.**Aguirre Baztan, A.**

- 1993 "La etnografía en el País Vasco". En *Aportacions a la història de L'Antropologia Catalana I Hispànica* (Calvo i Calvoa, Ll. ed.), Generalitat de Catalunya, Barcelona.

Altuna, B.

- 2003 *Euskaldun fededun*, Alberdania, Irun.

Altuna, J.

- 1984 "La prehistoria vasca" En *Euskaldunak. Euskal Etnia I* (Barandiaran, J.M. Dir.), Editorial Etor, Donostia, 1-14.

Apalategi, J.M.

- 1981 "Introducción a la historia crítica de la producción oral vasca", *Éthnica* 17, 5-47.
- 1987 "Estado histórico-actual de la antropología y de la etnografía en Euskal Herria", *Ohitura* 5, 135-184.

Azcona, J.

- 1984 *Etnia y nacionalismo vasco*, Anthropos, Barcelona.
- 1987 "La Antropología vasca hoy: estado de la cuestión", *Ohitura* 5, 22-34.

Azurmendi, M.

- 1993 *Nombrar, embrujar*, Alberdania, Irun.

Barandiaran, J.M.

- 1963 *Cuestionario para un estudio etnográfico del pueblo vasco*, Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi, Donostia.
- 1972 (1934) *Lehen euskal gizona*, Lur, Donostia.
- 1984 *Euskaldunak. Euskal Etnia*, Etor, Donostia.

Barandiaran, J.M.; Manterola, A.

- 2000 *Atlas etnográfico de vasconia*, Instituto Labayru, Derio.

Becerro de Bengoa, R.

- 1872 *Apuntes arqueológicos de Álava*, Viuda de Egaña e hijos, Vitoria.
- 1877 *El libro de Álava*, Centro literario vascongado, Vitoria.
- 1885 *El romancero alabes*, Diputación Foral de Álava, Vitoria.

Campion, A.

- 1971 *Nabarra en su vida histórica*, Ekin, Buenos Aires.

Erkoreka, A.

- 1988 *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak*, Kriselu, Donostia.

Evans-Pritchard, E.

- 1977 (1940) *Los Nuer*, Anagrama, Barcelona.

Fernandez de Larrinoa, K.

- 1998 "Jai eta ospakizunaren antropologiari buruzko zenbait ohar", *Antoine d'Abbadie 1897-1997 Congrès Internacional*, 361-366.
- 2002 "Antropologia soziokulturalaren nondik-norakoak Hego Euskal Herrian: euskal kultura ikertzetik kultura-askotza ikertzerako bideak". En *XV Congreso de Estudios Vascos: zientzia eta kultura, eta sare telematikoak* (Eusko-Ikaskuntza ed.).

Francisque, M.

- 1857 *Le pays Basque: sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*, Didot, Paris.

Garibai Zamalloa, E.

- 1904 (1592) "Refranes vascongados", *Euskal Erria* 51, 445.

Goizueta, J.M.

- 1851 *Leyendas vascongadas*, F. García Padrós, Madrid.

Herran Ureta, J.

- 1876 *La cuestión de los fueros: ligeros apuntes en defensa de las intituciones vasgongadas*, Hijos de Manteli, Vitoria.

Humboldt, G.

- 1922 (1801) "Diario del Viaje Vasco", *RIEV* 13, 614-658.
- 1923 (1801) "Diario del Viaje Vasco", *RIEV* 14, 205-250.

Iturriza Zabala, J.R.

- 1782 (Manuscrito) *Historia general de Vizcaya: comprobada con autoridades, y copias de escrituras fe hacientes, en la qual se relaciona su poblacion y posesion perpetua por sus naturales, connserbando su primitiva lengua, fueros, franquezas, y libertades...*

Iztueta, J.I.

- 1824 *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia: beren soñu zar eta itz neurtu edo versoquin : baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruccioac ere*, Ignacio Ramon Baroja, Donostia.

- 1847 *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia: ceñetan jarritzen diraden arguiro beraren asieratic orain-arte dagozquion barri gogoangarriac / eguin eta zucendu cebana Juan Ignacio de Iztueta, Ignacio Ramon Baroja, Donostia.*

Juaristi, J.

- 1987 *El linaje de Aitor*, Taurus, Madrid.

Landazuri Romarate J.J.

- 1798 *Historia civil de la M.N. y M.L. Provincia de Alava, deducida de autores originales, y documentos auténticos. Tomo Primero, Comprehende su antigua y moderna geografía y el gobierno político y militar*, Manteli, Vitoria.

Larramendi, M.

- 1882 (1754) *Corografía de la Muy Noble y Muy Leal provincia de Guipúzcoa*, s/n, Barcelona.

Leizaola, F.

- 1984 "Cultura pastoril" En: *Euskaldunak. Euskal Etnia I.* (Barandiaran, J.M. Dir.), Editorial Etor, Donostia, 65-96

Lizarrazpi, M.

- 1956 "De re iuridica. Fueroak eta fueroa", *Euzkogoa* 7, 70-74.

Manterola, A.

- 1994 "La escuela vasca de etnología", En *La escuela vasca de etnología* (Ayerbe, Enrique Ed.), Ostoa, Lasarte.

Martinez Gorriaran, C.

- 1993 *Casa, provicia y rey*, Alberdania, Irun.

Mogel, J.A.

- 1981 (1881) *Peru Abarka*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Morgan, L.H.

- 1851 *The league of the Ho-dee-no-sau-nee-or or the Iroquois*, Sage and Brothers, Rochester

Oloriz Azparren, H.

- 1880 *Fundamentos y Defensa de los fueros*, Roman Velandia, Pamplona.

Ramery Zuzuarregui, L.

- 1896 *El liberalismo y los fueros bascongados*, San Francisco de Sales, Madrid.

Urdiain, M.C.

- 1995 Ricardo *Becerro de Bengoa 1845-1902. Documentos biográfico*, Diputación Foral de Álava, Vitoria.

Urrutikoetxea, J.

- 1995 "Los retos del mundo agrario", *W.Von Humboldt: un puente entre dos pueblos RIEV* 41, 541-558.

Zabaleta, I.

- 1995 "W. Von Humboldten euskal ikerketen esanahia bere antropologian" en *Von Humboldt: un puente entre dos pueblos RIEV* 41, 431-451.

Zulaika, J.

- 1996 *Del cromañon al carnaval*, Erein, Donostia.

